

Elgoibar - 1289. zenb.
XXX. urtea - 2023-06-09



TOKIKOM

BARREN

*Agur,
andereño Itrijar*

10 Egun Kia.
Ekainaren 8tik 19ra.

NAIA CAR

Apalategi auzoa,1
Elbar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

☎ 943 70 70 33

Konsumitatu eskaintzaren baldintzak eta betekizunik www.kia.com helbidean.
Eskaintza honek Penintsulako, Balear Uharteetako, Mallorako eta Andaluziako konfesionario sare osorako balio du.

KIA

Ekigain Jaia

Sua, ura, natura eta... GU, urteko egunik luzeena ospatzeko
Ekainak 21, asteazkena

EGITARAUA:

- 18:30 Maalako parkean elkartuko gara, handik Sallobentera oinez joateko (*1).
- 19:30 Dantzaren urratsak ikasteko saioa.
- 19:45 Afari-merienda (*2). Ondoren txokolatea banatuko da.
- 20:45 Ongi-etorria.
- 21:00 Bertsloak. Ondoren, Ekigain kantaren eta dantzaren aurkezpena.
- 22:30 Saltoak
- 23:00 Etxerako bidea oinez (*3).

OHARRAK:

- (*1) Oinez joateko aukerarik ez duzuenontzat, 20:00etan izango da hitzordua Sallobente-Ermuaranen.
- (*2) Sallobenteko elkartekoek bokadilloak salduko dituzte, eskaerak aurrez egingo dira. Ekainaren 15ean Aita Agirre Kulturguneko arkupe inguruan 17:00 -19:00 bitartean eta on line labur.eus/ekigainogitaratekoak loturan.
- (*3) Bualtarako frontala edo kopeta-argia eramatea komeni da.



Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzailea:



TERTULIAK BERTSOTAN



Bertsotan emango diogu amaiera **TERTULIAK** programaren ikasturteari.

Uxue Alberdi eta **Julio Soto** izango dira bertsolariak eta

TERTULIAK programako jendeak prestatutako gaiekin jardungo dute bertsotan eta tertulian.

Ekainak 15, osteguna - 19:00 - Kultur Etxeko sotoan

Doan izango da eta *Tertuliak* programan parte hartzen ez dutenek ere ateak zabalik izango dituzte.




Argitaratzailea:



Alex Segade

Kazetaria

Etxebizitzen garestitzea



**"Oso gazte gutxi
ezagutzen ditut
etxea beraiek bakarrik
erosten dutenak"**

Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Iritzi atalean idazteko gaia librea dugunez, gehienetan arazoak izaten ditut gai bat aukeratzeko. Gai egoki bat bilatzen pasatzen dut denbora gehiena; gero testua idaztea erraza da. Badago zerbait aspaldian kezkatzen nauena, eta zera da, gazteok etxebizitza baten jabe izateko ditugun zailtasunak. Gaur egun, hipoteka batean sartzea oso garestia da edonorentzat, baina, bereziki, gazteontzat. Aurrezteko dugun ahalmena txikia da eta horrek gauzak ez ditu batere errazten. Gurasoen laguntza ezinbestekoa izaten da normalean. Oso gazte gutxi ezagutzen ditut etxea beraiek bakarrik erosten dutenak, eta uste dut, hori ikustea oso zaila dela orain. Alokairu partekatu bat izaten da ohikoena azkenaldian, aukerarik merkeena eta eskuragarriena delako, zalantzarik gabe, izan ere, norbera bakarrik alokairuan sartzea ia ezinezkoa da. Gure inguruko alokairuen egoera ez dut ondo ezagutzen, baina hiri handietan izugarritzko prezioetan daudenez, pisu bat partekatzea da aukera bakarra gehienetan.

Oso tristea da, egia esan. Etxe bat izateko gaitasuna gazteentzat urtez-urte beherantz doala iruditzen zait. Eta horregatik emantzipatzea ere bai, noski. Oraingo eroste ahalmena ez da lehen modukoa, eta eroste ahalmen txiki hori gehien pairatzen dugunak gazteak garena uste dut. Ez bakarrik etxebizitza; auto berriak ere geroz eta garestiagoak dira. Dena gorantz doa. Aurrezteko besterik ez dago.

Etxebizitzaren kontua guztiz aldatu da. Ez da lehen bezala, lanean hasi eta hipoteka batean sartu. Jada ez da hain erraza edo irisgarria. Gizartea aurrera doan heinean bilakaturik joaten da, eta lehentasunak, ohiturak eta bizimodua gizartearekin batera aldatzen dira. Ez duzu ezer izango eta zoriotsua izango zara. Esaldi hori azkenaldian behin baino gehiago entzun dut.

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko, Elgoibar

Zapatuan sekulako giroa izan genuen herrian. Goizean goizetik feria Aita Agirren, margolariak plazan, txistulari eta trikitilariak kaleetan zehar, azoka Lekuederren... Arratsaldean Mauxitxa txaranga erraldoiekin, eta gauean nagusien danborrada. Gustua ematen zuen kalean ibiltzeak. Danborradako antolatzaileak zoriondu nahi ditut, beste behin ere, beraien ahaleginari esker danbor eta barril hotsez alaitu zituztelako kaleak. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta gau zoragarria izan genuen.

Herriari ere txalo egin nahi diot, bereziki, gazteei, beraiei esker sekulako giro ona eduki genuelako danborradako afarian uneoro. Zoragarria izan da adin desberdinetako jendea danborradan ikustea, bereziki poza ematen du aurten sartu diren gazteak ikusteak. Eskerrik asko antolakuntzan lanean jardun zareten guztioi, eskerrik asko baita ere Udal Musika Bandako kideei danborradarekin bat egiteagatik; sekulakoak zarete! Mila esker erraldoiei ere, danborradari ukitu berezia emateagatik, eta mila esker danborrada amaierako su artifizialegatik. Zoragarria!

Espero dut aurtengoa bezalako urte asko etortzea, eta ahal bada, hobeak. Txalo bero bat herritarrentzat horrelako gogotsu parte hartzeagatik, eta espero dut horrela jarraitzea urte askoan.

P.F.

Jose Cruz Igartua, elgoibartar unibertsala

Pertsona bat unibertsaltzat jotzen denean munduan zehar jarduera ugari egin izan dituelako nabarmentzen da askotan. Gurera ekarrita, oso egokia da deskribapen hori, are unibertsalagoa den eta espiritualtasunarekin zerikusia duen beste baldintza batengatik: espiritualtasunean, hain zuzen, gizakia unibertsaltasun-mailarik gorenera iristen da, erlijioak eta kulturak gaindituz.

Jose Cruz sakramentino erlijiosoa apaiz egin zuen Jose Maria Setien gotzainak Elgoibarko

San Bartolome parrokian 1973ko ekainaren 10ean. Beraz, aurten apaiz modura urrezko-ezteiak beteko ditu. Elgoibarren jaio zen, Errosario kalean, 1947. urtean, Kalegoen plazatik oso gertu, eta familia elgoibartar oso erlijioso bateko kide da. Bere aitona Jacinto ere parrokiako sakristau gisa luzaro egindako zerbitzuengatik nabarmendu zen. Jose Cruz 12 urterekin sartu zen sakramentuaren kongregazioan, sei urtez jardun zuen Bilbon eta ondoren berrogei urtetik gora dihardu Madrilen apaiz-jardueretan.

Denbora horretan guztian, oso lotuta egon da beti bere familiarekin eta Elgoibarko herriarekin, eta, bizitza osoan zehar, Santa Klara komentuan, Maalako elizan eta, jakina, San Bartolome parrokian sarri eman ditu mezak. Bere sakontasun espiritualak eta bere adimen irekiak, "zen" sistema filosofikoa bere meditazio-praktiketan sartzera eraman zuten, eta, horren ondorioz, izaki sakon eta erabat kristaua bihurtu zen. Jainkoarekin komunikatzeko beste bide batzuk errespetatzen eta ulertzen dituen mistiko bat da, edozein erlijiotako mistikoekin mugarik gabe hitz egiten duen kristau unibertsala.

Madrilen taldeak sortuz eta zuzenduz egin dituen gogoeta-jardueren ondorioz, Madrildo biztanleen artean ospe eta miresmen handia lortu du. Duela sei urte Elgoibarko Isiltasun Eskolaren sorreraren inspiratzailea izan zen. Orduz gerotzik, Eskolak antolatzen duen Meditazio saioetako bat zuzentzen du hilero, eta haren funtzionamendua gainbegiratzen du. Horretarako, Madrildik etortzen da nekerik gabe.

2023. urte hau berezia da elgoibartar askorentzat, herriko seme batek bere apaiz urrezko-ezteiak betetzen dituela ospatzeko, eta hori bera, bere unibertsaltasunaren arrazoietako bat dela onartzeko. Horretarako Elgoibarko Isiltasun Eskolak hainbat ekitaldi antolatuko ditu: ekainaren 22an meditazio saio berezia egongo da, eta datorren azaroan, Jose Cruzek 76 urte beteko dituenez, eta eskola sortu zeneko 6. urteurrena izango denez, hainbat ekitaldiz osatutako astea izango dugu, den bezalako izateagatik eta merezi duen bezala omentzeko.

Jesus Maria Bilbao



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Herri barruko autobusak eskailera handiegia dauka: "Egunero erabiltzen dugu herri barruko autobus zerbitzua, baina koska handiegia dauka eta zailtasunak izaten ditugu igotzeko nahiz jaisteko. Autobus txikiak ere koska handiegia dauka, eta iruditzen zaigu ordaintzen dugunarekin irisgarritasun neurriak bete beharko lituzkeela".



'Tren Geltokia Bai' plataformakoek esker onez: Orain dela bi aste Altzolako hainbat bizilagunek sortutako 'Tren geltokia bai' plataformako kideek sinadura bilketa egin zuten tren geltokiari eusteko eskatuz. Plataformako kideek herritarrei esker onez zera esan nahi diete: "Mila esker Altzolan tren geltokia kendu ez dezaten eskatzen duen agiria sinatzera hurbildu zineten guztioi".



Mendaroko pilota irakasleari eskerrak emanez: "Mendaroko pilota eskolako mutikook eskerrak eman nahi dizkiogu gure irakasle eta entrenatzaile izan den Haitzart Iraolagoitiari. Gu prestatzen ahalegin handia egin ondoren, datorren ikasturtean ez da Mendaron jardungo eta agurtzeaz gain berarekin oso gustura aritu garela esan nahi diogu. Eskerrik asko, Haitzart".





MINTXETA

TABERNA



Orain bai, uda hasi da!!

Ordutegia astean zehar: 11:00etatik aurrera.
Ordutegia asteburuan: 10:00etatik aurrera.

**SANDWICH-AK
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
PINTXOAK
IZOZKIAK**

Erreserbetarako:

943 747 447




'We Make Debarrena! STEAM' erronkako saria irabazi dute Elgoibar ikastolako LH4ko ikasleek



Debegeak antolatzen duen *We Make Debarrena! STEAM* erronkako sari banaketa egin zuten joan zen barikuan Aita Agirre Kulturgunean. Guztira 27 esperimendu jaso eta guztiak baloratu ondoren, hiru irabazle izendatu dituzte: Elgoibar Ikastolako LH4, *Hiri maketa* lanarekin; Debako Luzaro ikastetxeko LH6, *Poliedroak* esperimenduarekin eta Mutrikuko DBH3 *Meategia* proiektuarekin. Zientziaren eta Teknologiaren esparruan egindako proiektuak

aurkeztu dituzte lehiaketan eta Elgoibarko neska-mutilek energia berriztagarria erabiltzen duen herri baten maketa egin dute. Irabazleek sariak jasotzeaz gain, Niala Magoaren ikuskizunarekin gozatzeko aukera ere izan zuten.

Antolatzaileen berbetan, aurten ere arrakasta "itzela" izan du Steam ekitaldiak eta eskerrak eman dizkiete ekimenean parte hartu duten ikasleei, prozesuan zehar erakutsitako "gogo eta kemenagatik".



Maria Asunción Jubeterentzat 'Elgoibarren erosteak saria du' kanpainako sari nagusia

Txankakua merkatarik elkartek egindako azken zozketako sariak banatu zituzten joan zen astean. Guztira, 5.000 euro banatu zituzten saritan eta mila euroko erosketa bono nagusia Maria Asuncion Jubetek irabazi du. Gainerako saridunek 200 euroko erosketa bonoak jaso dituzte sarizat.

Zuntz optikoa daukate jadanik Altzolako etxebizitzetan

Iritsi da zuntz optikoa Altzolako 142 etxebizitzetara. Guztiek 300 Mbps simetrikoko zuntzerako sarbidea dute. Ane Beitiak, jarduneko alkateak, nabarmendu du "beste behin ere bete dugu Altzolako bizilagunei eman genien hitza: zuntz optikoa 2023ko lehen seihilekoan iritsiko zela esan genien, eta hala izan da. Pozten gara zuntzaren hedapena gauzatu izanaz, inguruko bizilagunen eta enpresen konektibitatea nabarmen hobetuko baitu".

Garbiketa eta aparkaleku zerbitzuak izango dira udan Idotorben

Udalak garbitasuna eta segurtasuna areagotuko ditu udan, Idotorben. Komunak, eremu amankomunak, zelaia eta aparkatzeko gunea aldizka garbituko dituzte eta aparkatzeko eta elkarbizitzako arauak betetzen direla eta zelaiaren erabilera zaintzen dela kontrolatuko dute. Besteak beste, honakoak zainduko dituzte: ibilgailuak aparkalekuan aparkatzea, eta ez zelaian; sua parrilletan bakarrik egitea; zuhaitzetako adarrak sua egiteko ez mozte; zaborrak edukiontzietan edo paperontzietan botatzea; txakurra beti lotuta eramatea; eta natura eta ingurunea errespetatzea. Irailaren 18ra bitartean egongo dira indarrean zerbitzuak, izan ere, urteko sasoi honetan bisitari asko izaten ditu Idotorbek.

'Auzoko jaia'-k kultura askotako familiak elkartuko ditu domekan Elgoibarren

Elgoibarren elkartuko dira domekan, ekainaren 11n, 'Auzoko' egitasmoa martxan duten herri guztietako partaideak. 'Auzoko' programa euskaratik urrun bizi direnak euskarara gerturatu eta hizkuntzaren bidez euren herrietan auzotzeko aukera eskaini nahi du. Familien arteko harrera egitea da egitasmoaren helburua eta euskara eta aniztasuna oinarri hartuta, berez sortzen ez diren bizikidetzarako espazioak ahalbidetzea. Topaguneak, Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatu dute, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin.

Elgoibarren, auzotar eta auzokide familien topagune bihurtu da 'Auzoko'. Familiak hizkuntza eta aniztasuna oinarri hartuta, ikasturtean zehar batzen dira dinamizatzailerak batek gidatutako saioetan edota familien artean adostutako ekintzetan. Hilean bitan egin ohi diren topaketetan ezezik egunerokotasuneko jardueretan ere elkarbizitzarako tokiak eraikitzea da gakoa, eta horretarako herriko museo eta txokoak ezagutu, mokadutxoak egin eta elkarren kultura partekatzeo hainbat jarduera antolatzen dituzte Elgoibarko Izarra elkartetik.

Domekan egingo duten 'Auzoko jaia' urtean zehar 15 herritan egindako lanaren erakusleioa izango da. Iaz, Euskal Herrian, 35 jatorritako 200 lagunetik gora elkartu ziren 'Auzoko' egitasmoan.



Domekan ere jatorri ezberdinetako hizkuntza eta kulturek bat egingo dute Elgoibarren. Musika, dantza eta gastronomia uztartzen dituen egitarauaz gozatzeko aukera egongo da eta parte-hartzaileek jai giroan bizipen eta esperientziak elkartrukatu dituzte.

Egitaraua

- 11:30 Ongietorria, Kalegoen plazan, eta harrera udaletxean.
- 11:45 Hamaiaketakoa, Aita Agirre kulturgunean.
- 12:30 Musikaz eta dantzaz girotutako ibilbidea, Aita Agirre plazatik hasita
- 13:15-16:15 Munduko hizkuntzen agertokia; Auzoko jolasak eta tailerrak; janari dastaketa dantza afrikarren tailerra; eta munduko dantzak eta musika, Maalako parkean.

Harrera Plana prestatzen ari da Udala Elgoibarrera etorri berri direnentzako

Bihar, ekainak 10, ongi etorri saioa egingo die Udalak azken hilabeteetan elgoibarren erroldatu berri diren pertsonen. 11:30ean Aita Agirre kulturguneko Areto Nagusian izango da ekitaldia. Elgoibarko Udala herrira etorri berri diren pertsona guztientzako harrera protokoloa prestatzen ari da eta zapatuko ekitaldia, ongi etorri saioa, izango da berak gidatutako lehen fasea. Saioan, Elgoibarren dauden baliabide eta azpiegituren inguruko informazioa emango diete eta baita herriko zerbitzuen inguruko gida ere. Bigarren saioa urte amaieran egingo dute eta horretara herriko eragile eta talde desberdinak egongo dira gonbidatuta.

Jose Cruz Igartuak 50 urte beteko ditu zapatuan apaiz lanetan

Jose Cruz Igartua Elgoibarko apaizak ekainaren 10ean beteko ditu 50 urte Jose Maria Setienekin apaiz ordenatu zenetik. Elgoibarren eta Bilbon apaiz jardun ostean, gaur egun Madrilan dihardu, elizako lanak hitzaldiekin, zein bestelako meditazioekin partekatuz. Urrezko ezteiak direla-eta, Elgoibarko Isiltasun Eskolak meditazio saio berezia egingo du ekainaren 22an.



20.000 euroko dirulaguntza Udalak ostalarientzat

Aizu! Elgoibarko ostalaritza elkarteari 20.000 euroko dirulaguntza eman dio Udalak, herriko ostalaritza dinamizatzeko hainbat ekintza egiteko. Besteak beste, elkartegintza eta herriko ostalaritzaren irudi bateratu eta erakargarria sustatzea, bezeroak deskontu, berehalako sari, puntu-katalogo eta zozketen bidezko kanpainen bidez leialtzea edo inguruko herrietatik jendea erakartzen saiatzea. "Bezeroek udalerrri handiagoetara ihes egin ez dezaten" izango dira ekintzen helburuak.

Udaleko arduradunek adierazi dute tokiko enpresa-sarearen alde lan egiten jarraitzeko duten asmoa "irmoa" dela: "Udalak tokiko merkataritza, ostalaritza, zerbitzu eta negozioen aldeko



babesa mantentzen du, eta harreman estua du Aizu! elkartearekin, beste elkarteekin eta tokiko enpresarekin, kezkak eta ideiak trukatzeko eta tokiko oinarri ekonomikoa indartzeko egungo eta etorkizuneko erronken aurrean".

Bizilabe eta robotika ikastaroetarako izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko Udalak, Elhuyarrekin elkarlanean, Bizilabe aisialdi-eskaintzan izena emateko epea ireki du. Herriko gazteen artean zientzia eta teknologiarekiko, ekintzailetzarekiko eta sormenarekiko interesa eta motibazioa bultzatzeko ekimena da. Robotika ikastaroa ere eskainiko dute haurrak STEAM arloko lehen esperientziekin hasteko.

Bizilabeko tailerrak eta proiektuak 2023ko urritik 2024ko maiatzera bitartean izango dira Elgoibarko Makina Erremintaren Museoan 10 eta 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat. Esperimentu zientifiko eta teknologikoak egingo dituzte hainbat esparrutan, eta ikertzaile profesionalak zuzendutako proiektuak garatuko dituzte taldean. Denbora tarte horretan bertan, LH 1etik LH 4ra bitartekoek IMH Campusen instalazioetan robotika-tailerretan parte hartzeko aukera izango dute beren robotak, bideojokoak edo asmakizun teknologikoak sortu, diseinatu, muntatu eta programatzu.

Izena emateko epea ekainaren 22ra arte egongo da zabalik. Horretarako, honako helbide hauek erabili beharko dituzte interesatuek: labe.elhuyar.eus/elgoibar eta doplay.es/robotika-dibertigarria.

Elgoibar Ikastolak 'STEM School Label' aintzatespena jaso berri du

Elgoibar Ikastola aspaldian STEM arloetan (zientzia, tenologia, ingeniariaritza eta matematika) lan handia egiten ari da, eta 2020an lortutako Eusko Jaurlaritzaren STEAM zigiluak egin zion lehen aitortza ofiziala. Orduetik, urtetik urtera zenbait proiektuekin errekonozimendu hori jasotzen jarraitu du eta orain Europako *STEM School Label* aintzatespena jaso du.

Elgoibar industria herria izanik eta hemengo jarduerarik garrantzitsuena erramintar makinaren ekoizpena dela jakinda, Elgoibar Ikastolaren helburuetariko bat da bere ikasleei testuingurura egokitzeko tresnak eta baliabide egokienak eskaintzea. Hortaz, STEM arloekin lotura zuzena duten hainbat ekimenetan parte hartzen dute ikasturtero ikasleek, besteak beste, Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunaren aldarrikapenean, Elgoibarko Udalak antolatzen duen Zientzia Azokan, Debegesako STEAM Erronkan eta enpresa eta unibertsitateekin egiten dituzten elkarlanetan.

Elgoibar Ikastolaren hurrengo helburua izango da 'STEM School Label' maila goreneko aitortza lortzea. Horretarako egunetik egunera zientzia, teknologia, ingeniariaritza eta matematika arloetan egiten duten lanari jarraipena emango diote.

TRINITATEAK IRUDITAN

✍️👤 Ainhoa Andonegi / 📷 Irati Agirreazaldeg

Festa giroa izan da asteburuan Elgoibarren eta Mendaron, izan ere, bi herrietan ospatu dituzte Trinitate Jaiak. Ekintzaz beteriko asteburua izan da Elgoibarkoa, eta denetarik egon da: ganadu feria, artisau azoka, danborradak, kalejirak, lehiaketak... Herritarrek ondo erantzun dute, eta sekulako giroa egon da kalean. Mendaron, berriz, Trinitate Txiki Eguna ospatu zuten astelehenean, eta umeen bertso saioak bereganatu zituen herritarren begiradak. Argazki gehiago eta jaietako bideoa ikusteko: barren.eus









Xabier Loiolarentzat Aiastiako tiraldia eta Lander Odiaga nagusi sailkapen nagusian

Zapatuan Aiastiako bolatokian jokatu zuten tiraldiarekin amaitu dute Gipuzkoako Hiru-txirlo bola joko txapelketa. San Migel taldeko Xabier Loiolak bota zituen txirlo gehien (7) eta bolari elgoibartarra gailendu zen etxeko tiraldian. Bigarren postua ere San Migel taldeko bolari batek eskuratu zuen, Imanol Osorok, 4 txirlo botata. Alabaina, Aiastiako tiraldia baino zerbait gehiago zegoen jokoa, Gipuzkoako txapelduna nor zen argitzea. Azken asteetan 156 bolarik hartu dute parte 11 bolatokitan jokatu dituzten jardunaldietan, eta guztietako emaitzak batuta, Soroluzeko San Andres taldearekin jokatzeko duen Lander Odiaga markina-xemeindarra gailendu da, 37 txirlo botata. Pedro Gomez (Asola Berri) sailkatu da bigarren postuan, 35 txirlorekin eta Bittor Astigarraga (Asola Berri) hirugarrengoa, 33 txirlorekin. Bolari elgoibartarrei dagokionez, San Migel taldeko bost sailkatu dira aurreneko hamar postuetan: Xabier Loiola (4. postuan), Imanol Osoro (6), Jabier Osoro (7), Unai Loiola (9) eta Angel Ibarluzea (10). Emakumeetan Aretxabaletako Isana Gorosabel da Gipuzkoako txapelduna, 20 txirlo botata, Nerea Lete taldekideak baino 10 gehiago eta Olatz Rodriguezek (Asola Berri) baino 12 txirlo gehiago. Taldeka, Eibarko Asola Berri A taldea



gailendu da, 159 txirlorekin. San Migel A taldea eta San Andres A taldea sailkatu dira bigarren eta hirugarren postuetan, hurrenez hurren, 149 eta 120 txirlo botata, guztira. Bikotekako sailkapenean bi elgoibartar izan dira irabazleak, Imanol Osoro eta Xabier Loiola.

Lehendakari txapelketa

Txapelketari bukaera emateko, bihar, Lehendakari Txapelketa jokatu dute Gipuzkoako txapelketan lehen 64 postuetan sailkatu diren bolariak, kanporaketa formatoan. Azpeitiko Garmendipeko bolatokian izango da. Tiraldiaren ostean, Kiruri jatetxean bazkalduko dute guztiek eta Aintzane eta Mirari trikitilariak girotuko dute bazkalostea. Bukatzeko, duela urte pare bat hil zen Andres Calero "Pelos" omenduko dute. Aitortzaren ostean, Gipuzkoako txapelketako sari banaketa ekitaldia egingo dute.

Lariz eta Iraolagoitia nagusi Ortuellako BTT proban



Ortuellako Las Balsas izeneko zirkuituan jokatu zuten domekan Green Series mendi bizikleta zirkuituko seigarren proba, eta Lezaman jokatu zuten aurreko lasterketan moduan, euren kategoriako azkarrenak izan ziren Iñigo Lariz (Master 40) eta Azibar Iraolagoitia (Master 50). Iraolagoitiak, gainera, sailkapen nagusiko lidergoan jarraitzen du eta liderraren elastikoa jantziko du ekainaren 18an, Barakaldon jokatu duten hurrengo lasterketan ere. Lariz bigarren postuan dago Master 40 kategoriako sailkapen nagusian, 925 punturekin. Jonathan Larrañagak 1.030 ditu.

Gurpildun aulkiko errugbi erakustaldia eman dute Basatiak eta Adapta taldeek Elgoibarren



Agunarteko partida jokatu zuten, zapatuan, Gasteizko Zuzenak Basatiak eta Zaragozako Adapta taldeek, Olaizagan. Gurpildun aulkira egokitutako errugbia ezagutzera emateko antolatu zuten neurketa bi taldeek, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuarekin elkarlanean. Emaitza gutxienekoa zen arren, lehia handiko partida jokatu zuten. Gurpildun aulkiko saskibaloiko taldeengatik ezaguna zen Gasteizko Zuzenak taldeak kirol egokituko modalitate berri bat jarri zuen martxan 2017an, gurpildun aulkiko errugbiko Zuzenak Basatiak taldea sortuta. Errugbian gurpildun aulkian jokatzeko duen estreinako euskal taldea da arabarra. Ia taldearen sorreratik jokatzeko



du taldean Markel Kerexeta elgoibartarrak, eta oraingoan bere herrian jokatzeko aukera izan zuen. Elgoibarren bizitakoa kirol jardunaldi "aparta" izan zela aipatu dute Zuzenak taldekoek.

Ekainaren 15ean amaituko da Debabarreneko raidean izena emateko epea



Morkaikoren Raid Taldetik Debabarreneko Orientazio Raidean parte hartzera animatu dituzte herritarrek, bereziki Familia raidean, oraingoz jende gutxi eman duelako izena. Proba ez dela lehiakorra ez eta oso gogorra ere esan dute. "Herri barruan eta inguruko baserri bideetan egingo dugu, eta oinez edo korrika txikian egin ahalko da, familiako txikienekin egiteko pentsatuta dagoen proba baita". Entretengarriago egiteko proba bereziak prestatu dituzte, besteak beste, crossfit, slackline edo memorian oinarritutako orientazioa. Nagusien raiderako ere prest dituzte proba bereziak, eta horietako bat aurreratu dute antolatzaileek, Saturixo erreken jaitsiera. Ekainaren 15a izango da raidean izena emateko azken eguna. Informazio osoa debabarrenaraid.wordpress.com/raid-aventura/ webgunean. Raida ekainaren 17an izango da.

Josu Artolak irabazi du Elgoibarko Enduroa bigarren urtez jarraian

I dotorbetik Urruzunora aldatu zuten iaz Elgoibarko Enduroa, eta bigarren urtez egin dute aurten Urruzuno bailarako mendietan. Erlojuaren aurkako proba egiteko zirkuitua Albitzuri industriagunean eduki zuten moto gidariek, eta 32 kilometro inguruko mendi ibilbidean lehiatu ziren gero, Urruzuno bailara eta Azkarate gaina arteko mendiko ibilbideetan barrena. Euskadiko motoziklismo federazioak antolatzaileen lana txalotu du. "Potok (Aitor Osoro) eta bere laguntzaileek, Urnobitza moto klubekoek, beti antolatzen dituzte goi mailako lasterketak eta azkenengo hau ere halakoxea izan da, akatsik gabea eta aparta", adierazi dute. Aurten ere Euskadiko txapelketarako puntuagarria izan da Elgoibarko Enduroa. Emaitei erreparatuta, Josu Artola gailendu zen. Moto gidari amezketarra izan zen azkarrena 90 gidarien artean. Elgoibartarren artean Eneko Sanzek eskuratu zuen posturik onena. Urnobitzakoek bi emakumek parte hartu izana nabarmendu dute, Sandra Gomez madrildarra eta Nora Esteban 22 urteko gidari gernikarra.



Gaurve, Kopako txapeldunorde

Gipuzkoako Kopako finala jokatu zuten Gaurve Asesores Elgoibar eta Mecalbe Eibar Eskubaloia taldeek, aurreko zapatuan, Lezoko Bekoerota kiroldegian. Mailaz jaitsi ostean, denboraldiari amaiera gozoa emateko aukera zuen Sanloko senior mailako talde nagusiak, baina ezin izan dute finala irabazi. Auzokoen arteko lehiak eibartarrak gailendu ziren, eta nagusitasunez irabazi zuten Lezon jokaturako finala, 16 eta 27ko emaitzarekin.

Sanlo festa, zapatuan

Kirol lehiak amaitu ostean, festa giroan agurtuko du denboraldia Sanlok. Sigmako aparkaleku estalian batuko dira zapatuan, ekainaren 10ean, kirol taldeko jokalariek, entrenatzaileak, gurasoak, eta laguntzaileak. Denboraldia erabat ixteko, urteko batzar nagusia



gingo du Sanlok uztailaren 7an. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 19:00etan. Kirol emaitzak eta balantze ekonomikoa aurkeztu eta aztertzeaz gainera, zuzendaritza aldaketa ere landuko dute batzarrean.

C.D. Elgoibarren urteko batzar nagusia, ekainaren 22an

Club Deportivo Elgoibar futbol taldeak urteko batzar nagusia egingo du ekainaren 22an, eguena. Musika Eskolako auditoriumean izango da, 19:00etan hasita. Urteko balantze

ekonomikoa eta kirol balantzea aurkezteaz gainera, Zuzendaritza berriaren onespina aztertu eta bozkatuko dute batzarrean. Denboraldi amaierako bazkaria ekainaren 17an egingo dute.



AGUR, ITZIAR AJURIA, IKASTOLAKO LEHEN ANDEREÑO

Itziar Ajuria Garate hil zen asteburuan 99 urte zituela. Elgoibarko ikastolari hasiera eman zion lehen andereñoa, euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik izan da bereziki ezaguna. Bere oinarrizko ikasketak gaztelaniaz egin bazituen ere bera izan zen eskolak euskaraz eman zituen lehen irakaslea ikastolan. Jostun modura hasi zen lanean, baina ondoren, Euskal Herrian ezezik Avilan, Salamancan zein Madrilan egindako hezkuntza ikastaroak josi zituen ikasleekin jarduteko. 24 urtez Elgoibarko ikastolan jardun zenez, bere ikasle izandakoek eta haien gurasoek gogoan izango dute, baita beste hamaika herritarrek ere.

Itziar Ajuria Garate hil da, Elgoibarko ikastolako lehen andereñoa izan zena. Arratiako Ubide herriko Anbe baserrikoa zuen aita eta debarra ama, eta umetan etorri zen Elgoibarrera. Eskola publikoetan 15 urtera arte ikasi zuen eta gero, familiako jostundegian egin zuen lan 38 urte bete zituen arte. Ondoren, Banco de San Sebastianen hasi zen lanean, letrak kobratzen, baina banketxeak berak kanporatu egin zuen gero, emakume batentzako lana ez zela iritzita.

Orratza eta letrak eskuan bai, baina bestelako letrek eta hitzek, euskarazkoek, egin zuten ezagun Itziar Ajuria. Izan ere, euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik izan da bereziki estimatua Elgoibarren.

50eko hamarkadan, euskal kulturaren aldeko mugimendu ezkutu eta isilaren lehen urratsetan parte-hartze aktiboa izan zuen, eta 1962an zabaldu zuten Elgoibarko lehen ikastolako lehenengo andereñoa izan zen.

Elgoibarko Izarrak San Frantzisko kaleko 24. zenbakiko lokala (Loritoneko Ikastola) erosi zuen eta bertan hasi zen andereño Ajuria, Karmele Esnal andereñoaren laguntzaz ikastaldi bat egin ondoren. 1962ko maiatzaren 2an ekin zion andereño lanari, 29 ume txikirekin. Ez zuen hasiera errazik izan. Antolakuntza pedagogikoari dagokionez, zailak izan ziren urte haiek, eta soldata urriarekin eta Gizarte Segurantzak kotizatu gabe egin zuten lan garai hartako andereñoek. Frankismoan klandestinitatean jardun zuten euskal andereñoak omendu zituzten 2006ko Sabino Arana Sariarekin. 205 andereño osatzen dute kolektibo hori, eta tartean zen Itziar Ajuria ere Elgoibarko ikastolako beste lau irakaslerekin: Jone Etxabe, Nekane Iturbe, Maria Isabel Mujika eta Mari Juli Konde.

Itziar Ajuriari zenbait elkarrizketa egin izan dizkiote Ikastolako bere garaiki oroituz eta Euskal Herriko ahozko ondarea jasotzen duen Ahotsak proiekturako elkarrizketatu zutenean garai hartan klandestinitatean aritzeagatik beldurrik pasa al zuen galdetuta Itziar Ajuria zera esan zuen: "Ez neukan titulurik, baina ederki moldatu nintzen umeekin, hala ere inspektorea noiz etorriko arduratuta izaten nintzen, bai. Ikastola ez zen legala eta ausarta izan nintzen ni kargua hartu nuelako, baina benetan ausartak gurasoak

izan ziren umeak nire kargura laga zituztelako, benetako abertzaleak ziren haiek". BARRENEN azaldu zuen hasiera-hasieran 'Xabierto' testu liburuarekin bakarrik moldatu behar izaten zutela. Dotrina Karmele Esnalek emandako liburu batekin irakasten zien umeei eta berak euskaratzeaz gain, jaungoikoa marrazkiz irudikatzen zuen. Bere ikasleren batek adarra jo izan zion gerora, esanez, "jaungoikoa nolakoa zen ez zekiten, baina gure irakasleak bazekien".


Gogoan zuen lan baldintzak ere ez zirela onenak. "Zenbat hauts, hotz eta hezetasun pasa behar izan ote ditugu, zenbat leku aldaketa...". Loriton hasi eta Santa Ana kalean zein parrokiako lokal batean ere aritu zen irakasle lanetan eta beste makina bat urte gaur egun Elgoibar Ikastola dagoen eraikinean egin ondoren 1986. urtean hartu zuen erretiroa. Berak ikasle asko izan zituen gogoan, hasiera hartakoak batez ere eta ikasle asko bera gogoan zutela atera ziren, noski, ikastolatik.

Ikastolaren historiari egin zizkion ekarpenak, bai, baita herriko historia orokorrari ere. Besteak beste Elgoibarko memoria historikoa berreskuratzeko informazio asko eman zuen Elgoibar 1936 elkartekoen esanetan eta hori eskertu nahi izan diote. Gogora ekarri dute ajuriatarrek zuten jostundegia arpilatu zutela goardia zibilek eta elgoibartar karlista ezagun batek. Itziar Ajuria ere kontatutakoa

da Jostundegian lan egiten zuen anaia 36ko urtarrilean soldadu joan zela eta gerrak Burgosen harrapatu zuela. Aitak, berriz, zalantza izan zuela Bizkaira joateko senideak han zirelako, baina "ama eta biok hemen bakarrik uzteak estuasuna ematen zion eta gurekin gelditu zen".

Irakasle izateari laga ostean, bidaiatzea eta interneten ibiltzea izan ziren Ajuriaren bi zaletasun nagusiak. Aurrez ere bidaia asko egindakoa zen. Ikastolan 'Club Jubenil'-en arduraduna zen eta horren harira urtero lau eguneko bidaiak egiten zituen Greziara, Menorkara... Berak gogoko izan zuen gurean baino hobeto bizi diren lekuetara bidaiatzea, toki aurreratuetara, Kanada, Suedia, Noruega, Italia, Belgika, Frantzia, Holanda... bisitatu zituen besteak beste iloba Jone lagun zuela eta herrialde pobreagoetan ere egon zen, Errusian, esaterako. Askok ikasi zuen kultura desberdinak ezagutzuz, baina bere esanetan, "bizitzeko ez da Euskal Herria bezalakorik". Urte luze hauetan guztietan oso pozik bizi izan da Itziar. Positiboak, umoretsua eta bere bizipenak kontatu zalea izanik, ingurukoei ere pozik izateko aukera eman die.

Emakume aurrerakoi batek esan digu agur. Irakasle lanetan euskaraz, modu klandestinoan lehen pausoak ematera ausartu zenak eta bere eskola jardunean ezezik euskal kulturaren bidean aurrera egin zuenak herritar askoren gogoan geldituz.



*Ezkerrean, andereño Itziar Ajuria Ikastolako lehen ume taldearekin.
Eskuman, Jone ilobarekin, Moskun.*

IKER IZETA

Sanloko jokalaria ohia

✍️ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea



Hamazortzi denboraldi egin ditu Iker Izetak (Elgoibar, 1990) Sanlon, eta aurten erretiroa hartzea erabaki du. Alcortak etxean jokatu zuen azken partidari agur hunkigarria prestatu zioten taldekideek, eta horrez gain, Mauxitxa txarangako musikariak ere igo ziren kiroldegira, Izeta txarangako kidea ere badelako. Norgehiagoka galdu egin zuen Alcortak, eta gainera, Izeta bera kanporatu egin zuen arbitroak partida amaitzeko hamar bat minutu falta zirela. Denboraldi gogorra izan dute aurtengoa, eta maila galdu du Alcortak. Arantza horrekin doa Izeta, baina bere eskubaloi ibilbideko balantzea positiboa dela adierazi du. Jokatzeari laga dion arren, aurrerantzean Sanlori laguntzeko prestutasuna azaldu du.

“Neukan onena eman diot Sanlori eta gustura noa egindako lanarekin”

Txaranga eta eskubaloia batu zituzten zure lagunek etxean jokatu zenuten partidari. Nola bizi izan zenuen guzti hura?

Taldekideak zerbait prestatzen ari zirela banekien, baina hala ere urduri jarri nintzen. Txarangakoak ez nituen espero, eta sorpresa polita izan zen. Urduritasuna igarri nuen gero partidari zehar.

Despedidako partida ez zen zuk nahi bezala bukatu. Zer gertatu zen?

Arbitroak kaleratu egin ninduen, eta berotuta amaitu nuen. Tabernara joan eta garagardo bat edan nuen kolpean! Haserre nengoan, uste dut ez nuela kanporatzerik merezi. Buruari bueltaka jardun dut gainera, eta ez dakit beste inoiz kanporatu nauten, ez naiz gogoratzen, egia esan. Despedida egunean izan beharra ere...

Nolakoa izan da aurtengo denboraldia?

Gogorra izan da, partida asko galdu ditugu eta mailaz jaitsi gara. Baina taldekideok ondo eramanez dugu egoera, eta geneukan guztia

eman dugu. Horrelako egoeretan normala izaten da desmotibatzea, eta ez da gure kasua izan, partida guztiak borrokatu ditugu, baina esperientzia faltagatik edo auskalo zergatik, partida asko galdu ditugu azken minutuetan. Nire eskubaloi ibilbidean ez dut orain arte maila jaitsierarik bizi, guztiz kontrakoa izan da, igoerak ezagutu ditut eta pentsatzen nuen maila jaitsierarik gabe agurtuko nintzela, baina ez da posible izan.

Nola iritsi zinen Sanlorari?

14 bat urterekin iritsi nintzen, eta 2008tik egon naiz Alcorta taldean. Pandemia iritsi zenean txapelketak bertan behera geratu ziren, eta hurrengo denboraldian eskubaloia laga nuen. Urte hartan *Vucci* hil zen, eta Zigor Esnaolak esan zidan ea lagunduko nion apur bat entrenamenduekin. Laguntzera bueltatu nintzen, eta azkenean berriz jokatzeko hasi nintzen. Hemeretzi urte egin ditut Sanlon, baina hamazortzi denboraldi jokatu ditut. Balorazio oso positiboa egiten dut, lagun pila bat egin ditut, bai taldean eta baita kontrako

taldeetan ere, eta esperientzia oso ona izan da niretzat. Nik edonor animatuko nuke eskubaloia probatzera.

Nola aldatu da eskubaloia urte hauetan?

Gaur egun oso gazte hasten dira umeak eskubaloian jokatzeko, eta gu baino ezagutza handiagoarekin iristen dira lehiatzen hasteko mailalara. Hori alde batetik ona da, umetan hartzen direlako kirolerako abileziak, baina aldi berean uste dut ona dela umeek kirol desberdinak probatzea umetan. Elgoibarren gainera kirol aukera zabala dago.

Nola utzi duzu taldea?

Talde polita laga dut. Zigorrek jarraituko du entrenatzaile, eta iruditzen zait aurrera begira lan ona egiteko moduko taldea dagoela. Datozen bi-hiru urteotan bloke bera mantentzen bada, lorpenak etorriko direla uste dut.

Zer eman dizu Sanlok?

Talde bateko kide izateko aukera eman dit, horrek berarekin dakarren guztiarekin. Familia bat izan gara. Asteaz hiru aldiz entrenatzen genuen, eta asteburuetan partida. Ordu asko pasatu ditugu elkarrekin, adin desberdinetako jendea biltzen ginen eta hori oso aberasgarria izan da. Horren falta somatuko dut aurrerantzean, baina batez ere, jokatzeko botako dut faltan.

"Talde bateko kide izateko aukera eman dit Sanlok, horrek dakarren guztiarekin. Familia bat izan gara"

Eta, zuk, zer eman diozu Sanlori?

Hori besteek erantzun beharko dute! Baina bueno, neukan onena eman diot Sanlori, eta egia esanda gustura noa egindako lanarekin. Eskubaloiak ez dit ezer zor, eta ezta nik berari ere. Konpromisoa erakutsi dut hasieratik, eta momentu txarretan ere eutsi diot. Batzuetan ematen du uneoro jokatzeko jardun naizela, eta dena polita izan dela nire ibilbidean, baina ezagutu ditut jokatu gabeko une gogorak ere, eta horrelakoetan ohikoa izaten da taldea lagatzea. Baina nik gaintitu nuen garai hura ere, gogoz entrenatzen nintzen, eta azkenean lortu nuen nire lekua taldean. Bukarera arte jarraitu dut, dena ematen. Umeak entrenatzen ere aritu izan naiz, eta aurrean, gainera, entrenatu nituen ume haiekiko batzuk izan ditut taldekide. Politak izan da.

Nola biziko duzu eskubaloia aurrerantzean?

Lehenengo atseden hartuko dut, distantzia pixka bat, bestela berriz jokatzeko gogo sartuko zait-eta. Baina gero hor egongo naiz, taldea animatzeko eta klubean laguntzeko ere.



ANDONI MUTILOA

Sortzailea

✍ Irati Agirreazaldegia / 🎤 Eider Iturriaga

'Sex Sua' musikala izango da domeka arratsaldean Mendaron. Ligatzeko aplikazio digitalen erabileraren ondorioz sortzen diren harreman kode berriak eta horien eragina umorea, dantza eta musika baliatuz taularatuko ditu Andoni Mutiloak (Hernani, 1976). Ikasketaz kazetaria eta irrati esatari aritutakoa da, baina antzerkian, dantzan eta kantuan ere aritzen da besteak beste, hortaz, sortzailetzat dauka bere burua. Ikusleek sorpresa bat baino gehiago hartuko dute eta zer pentsatua ere emango die musikalak. Honen berri eman digu protagonistak.



■ ■ Gure bizitza sexualari buruzko ikuskizuna landu nahi nuen umoretik ■ ■

Irratian entzuten zuen jendeak zure ahotsa, orain, ordea, antzezlekuetan entzun ezezik ikusi egiten zaituzte. Nola hasi zinen antzerkian?

Txikitatik izan dut antzerkiarekin eta dantzarekin hartu-emana zaletasun modura. 2017an eszedentzia hartu nuen Euskadi irratian eta nire asmoa hori ez bazen ere ideia bat bururatu zitzaidan istorio baterako eta handik sortu zen 'Esnatu naiz' kabareta. Nire lehen ikuskizun hori estreinatzean sartu nintzen burubelarri arte eszenikoen munduan. Urte batzuren ondoren erabaki nuen irratora ez itzultzea eta iaz bigarren ikuskizuna iritsi zen: *Sex Sua*.

Antzezlari hau da, hain zuzen ere, Mendaron eskainiko duzuna. Izenburuari erreparatuta sexua da ikuskizunaren gai nagusia, ezta?

Gure bizitza sexualari buruzko ikuskizun bat landu nahi nuen, baina sormen prozesuan

abiapuntua ligatzeko aplikazioak izatea erabaki nuen. Aktualitate handiko gaia da, denbora gutxian asko ari dira eraldatzen harreman kodeak, baina gizartean ez dugu hausnarketarik egin eta askotan ez gara jabetzen horren atzean dauden gauza surrealistetaz. Ez dakigu gure burua behar bezala zaintzen eta min hartzen dugu edo mina ematen diogu beste norbaiti. Gai interesgarria iruditzen zitzaidan eta hori izan zen ikuskizuna martxan jartzeko arrazoi nagusia.

Monologo bat izateko asmoa zenuen hasieran, baina musikal batekin etorriko zara.

Antzerkira gerturatzen zen monologo bat izan behar zen hasieran, bai, baina gidoia idazten hasi nintzenean konturatu nintzen jadanik banituela abesti batzuen melodiak eta hitzak prestatuta eta gaiarekin bat egiten zutela. Gainera, nik antzerkia bai, baina dantza egitea eta abestea ere beti izan ditut oso gustuko. Gidoiak berak eskatu zidan bi arlo horiek uztartzeko.

Musikal batean sexuaren gaia nola landu daiteke?

Nik nahi nuen jendeak pentsatzea: "Benetan gustura nago daukadan bizitza sexualarekin?". Ligatzeko aplikazioak nik ere erabili izan ditut eta zurrumbilo horretan sartuta gai hori lantzerakoan fikzioa egin nahi nuela argi izan nuen. Gai honi buruz hitz egiteko modu asko daude eta nik umoretik jo nahi nuen. Aplikazioetan gauza kuriosoak, xebebreak eta surrealistik gertatzen dira eta niri gertatu zaizkidan anekdotak eta

lagunek kontatutakoak erabili ditut musikalean. Nire buruari barre egiten diot ikuskizunaren bitartez. Oso sana eta ederra izan da nire zenbait gauza intimo azalera teza, baina hori nahastu dut momentu serioagoekin.

Zuk zeuk bakarrik antzetzuko duzun arren, bi pertsonaia ikusiko ditugu taula gainean, ezta?

Bi pertsonaia bururatu zitzaizkidan: Hiruki eta Imanol. Hiruki pertsonaia atipikoa da, ligatzeko aplikazioetan ez galtzeko gida sortu duena. Gainera, autoamodioaren apologia egiten du esanez, aplikazioen zurrumbiloan sartzerakoan min handia hartu dezakegula, bakoitzak gure buruarekin nahikoa daukagula, ez dugula beste inoren beharrik. Imanolek ezagutzen du gida, probatu ditu aplikazioak eta min hartu arren beste pertsona batzuekin harremana izan eta geratzea nahi du. Momentu batzuetan interakzioa egongo da nahiz eta nik eman pertsonaia bie bititza. Beraien arteko jolas horri esker lortu dugu umorearen eta momentu serioen arteko oreka.

Horrelako aplikazioetan gezur asko erabiltzen direla esan ohi da. Alderdi serio horrek badu pisurik ikuskizunean?

Gezurrei buruz askorik ez dugu hitz egin. Ligatzeko aplikazioetako kodigoak hain ditugu baneraturata ze berez atsegin ez duguna egitera iristen gara. Askok amaitzen dugu aurrez aurreko harremanetan egingo ez genituzkeen gauzak egiten. Esaterako, oso ohikoa da gaur egun aplikazio batean sartu eta eskatu gabe besteak biluzik agertzen den argazki batzuk bidaltzea eta horrek adierazten du larrua jotzea eskatzen ari dela eta hitzordu bakarrean amaitzen da dena. Hori aurrez aurrekoetan hain modu gordinean ez da gertatzen. Badirudi kontatzen ari naizena exageratua dela baina hala da. Adibideak bere horretan kontatzen ditugu ikuskizunean.

Antzerkia izan bada, baina musikak eta dantzak zein leku dute?

Antzerkiak du pisurik handiena, baina musika eta dantza eskaintzeak niri ilusio handia egiten dit. Sei kantu sortu ditugu espresuki ikuskizun honetarako eta nik abesten ditut eta momentu batzuetan dantza ere egiten dut. Hirukiren kasuan, adibidez, nortasuna eman diogu mugimenduen bidez. Ikuskizunerako abestiak grabatzeaz gain, bideoklipak ere egin ditugu eta


webgunean daude ikusgai. *Sex Sua* ikuskizuna hor dago, baina paraleloan musika proiektua ere martxan jarri dut. Lehen urratsak besterik ez dira, hala ere, gustatuko litzaidake musika arloa gehiago lantzea.

Zerbaiten aldarrikapena egin nahi izan duzu ikuskizunarekin?

Jendeak gogoeta egitea nahi dut bere bizitza sexualaren inguruan. Ez nago ligatzeko aplikazioen kontra, tresna iraultzaileak iruditzen zaizkit. Lehen gauetz, taberna giroan, alkohola tartean zela ligatzen genuen batez ere eta orain hori aldatu egin da, ligatu dezakegu edozein lekutan, ordutan baita norbere etxetik ere. Baina aplikazioak askotan adikzioa sortzeko eginak daudenez, jendeari kontuz ibiltzeko esan nahi diot. Zabaldu nahi dut baita ere genero eta sexu aniztasunaren aldeko mezua oraindik behar handia dagoelako.

Norentzat da ikuskizun hau?

Edonorentzako. Ligatzeko aplikazioak erabili ez arren gizarte honetan bizi gara eta gertuko jendeak erabil ditzake, beraz, komeni zaigu jakitea zer gertatzen den. Ez da umeentzako ikuskizuna, baina nerabeek horrelako aplikazioak ezagutzen dituzte, hala ere, erreferentzia batzuk falta zaizkie eta lagundu diezaieke zenbait gauza pentsatzen. Zer pentsatua emango duen ikuskizuna da, baina ondo pasatzeko asmoz. ■



Udal Liburutegiari buruzko gogobetetze inkesta betetzeko eskatu du Udalak

Gotzon Garate Udal Liburutegiak ematen duen zerbitzuari buruzko asebetetze maila zein den jakiteko galdetgia prestatu du Elgoibarko Udalak. Erabiltzaileek izan ohi duten esperientziari buruzko informazioa jaso nahi dute galdetegiaren bidez, baina bertara joan ez arren herritar guztiak animatu nahi dituzte inkesta betetzera. "Herritarrek izan ditzaketen proposamenei erantzuteko eta liburutegiaren zerbitzua hobetzeko", ere bada inkesta Udalaren esanetan. Besteak beste, jakin nahi dute liburutegiak ematen duen zerbitzutik zer den beren gogokoena eta zer hobekuntza egin ditzaketen erabiltzaileen premiak asetzeko. Horretarako, erabiltzaileen parte hartzea ezinbestekoa dela azpimarratu dute.

Galdetgia "azkar eta erraz" betetzeko modukoa da. www.elgoibar.eus webgunean edo Elgoibarko Udalaren whatsapp zenbakian eskuratuta, bestela, Herritarren Harretarako Zentroan. Galdetgia bete eta leku hauetan



laga behar da: HAZ, Jubilatuen Biltokia, Aita Agirre kulturgunea, Olaizaga kiroldegia edo Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolan, ekainaren 20an baino lehen.

Galdetgia betetzen dutenen artean 80 euroko erosketa-bono bat zozkatuko dute, Txankakua Merkatarien Elkarteko dendetan gatzatzeko.

Ikasturte amaierako beste bi emanaldi egingo ditu Musika eta Dantza Eskolak



Joan zen barikuan Maalako parkean ikasturte amaierako musika jaialdia eskaini zuten Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako zenbait ikaslek. Entzule asko inguratu zen emanaldira eta giro polita sortu zen. Gaurko (barikua, ekainak 9) dantza jaialdia antolatu du eskolak EMUDAFerekin batera. Emanaldia Kalegoen plazan izango da 19:00etan. Ikasturte amaierako azken emanaldia ekainaren 12an egingo dute Musika Eskolako auditorioan 19:00etan hau ere.

'Birakaos' dantza ikuskizuna eskainiko du ekainaren 14, 15 eta 16an Birakak



Biraka Dantza Taldeak hiru dantza emanaldi eskainiko ditu datorren astean Herriko Antzokian 'Birakaos' izenburupean. Ekainaren 14an, 15ean eta 17an izango dira ikuskizunak, 20:00etan. Saio bakoitzean 150 dantzari inguruk hartuko dute parte. Dantzariak 4 eta 70 urte bitartekoak izango dira. Birakan balleta lantzen dute oinarrian, baina 'Birakaos' ikuskizunean askotariko dantzak eskainiko dituzte erritmo eta musika ezberdinekin.

Uztailaren 7tik 9ra ospatuko dituzte Urazandiko jaiak



Iaz berreskuratu zituzten Urazandiko jaiak, eta aurtengorako ere prest daukate egitaraua. Urasandi okindekigoek botako dute jaiari hasiera emateko txupinazoa, eta uztailaren 7tik 9ra bitartean ospatuko dituzte jaiak. Antolatzaileek esan dutenez, iazko esperientziatik hainbat gauza hobetu dituzte, eta berrikuntzak ere egongo direla aurreratu dute. Kontzertuak, Mauxitxa txaranga, buruhandiak, zirko tailerra, umeentzako puzgarriak, auto klasikoaren erakustaldia eta auzo-bazkaria egingo dituzte, besteak beste. Zapatuan izango da bazkaria: paella, postrea eta kafea. Bazkaritarako tiketak Celia tabernan, Karkizano dendan, Urasandi okindegian eta Kima estetika zentroan daude salgai, 10 euroan. Errifak ere saltzen ari dira, eta uztailaren 9an egingo dute zozketa. Horrez gain, beste opari batzuk ere zozketatuko dituzte, auto klasikoaren erakustaldian parte hartzen dutenen artean, esaterako, eta umeentzako opariak ere egongo dira.

Aurtengo berrikuntzen artean, *Food Truck* estiloko furgoneta bat jarriko dute, herritarrek Herri Eskolako patioan bertan afaltzeko aukera izan dezaten, herrira jaitsi gabe.

15.000 euro inguruko aurrekontua dute jaiak, eta Udalak 1.900 euroko laguntza eman die. Gainerakoa beraiek lortu dute, errifak salduz, iazko jaietan txosnan lan eginez, bazkaritarako tiketak saltzen, babesleei esker... Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte jaietan parte hartzera.

Ikastolaren Eguna, bihar

Ikastolaren eguna ospatuko dute bihar, eta goizean goizetik hasiko dira ekitaldiak. 10:30ean abiatuta, Kalegoen plazatik ikastolaraino joango dira kalejiran trikitilari eta buruhandiek, eta ondoren, adin desberdinetako ikasleentzako ekintzak izango dituzte ikastolan: altxorraren bila, herri kirolak, eskulanak, dantza eta marrazki lehiaketa, zozketak... Niala magoaren ikuskizunak itxiko du jaiak, eguerdian.

Udako euskara ikastaroak, AEK-n

AEK euskaltegiak 80 orduko euskara ikastaro trinkoak emango ditu uztailan eta irailean. B1, B2 eta C1 mailetan HABEren azterketa prestatzeko aukera egongo da. Ikastaroez gain, euskara ikasteko beste modu batzuk ere eskaini dituzte: barnetegiak, mendi ibilaldiak, online ikastaroak... Horrez gain, 2023-2024 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea zabaldu dute. Informazio gehiago: 607 601 423 telefonoan edo elgoibar@aek.eus helbidean.

Bertsotan amaituko dute 'Tertuliak' egitasmoaren aurtengo ikasturtea, ekainaren 15ean



Tertuliak Bertsotan ekitaldia prestatu dute *Tertuliak* egitasmoaren aurtengo programari amaiera emateko, eta bertsoak izango dira ekimeneko protagonistak. Uxue Alberdi eta Julio Soto izango dira bertsolariak eta *Tertuliak* programako jendeak prestatutako gaiekin jardungo dute bertsotan eta tertulian. Ekainaren 15ean izango da saioa, 19:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Elgoibarko Izarrak, Udalak, Udal Euskaltegiak eta AEK euskaltegiak antolatu dute, eta jakinarazi dute *Tertuliak* egitasmoan parte hartzen ez dutenek ere zabalik dutela ekitaldirako atea. Doan izango da.

Ikusmin handia piztu du Anjel Bazterretxea Mendaroko abade izandakoari eginiko omenaldiak

5⁴ urtez Mendaroko abade izan zen Anjel Bazterretxea omendu dute Mendaron. Joan zen barikuan *Herri bat mila oroitzapen* argazki erakusketa inauguratu zuten. Bazterretxearen artxiboko 23 erretratu jarri dituzte ikusgai, eta horiez gain, bideo bat osatu dute beste dozenaka argazkirekin. Antolatzaileek esan dutenez, konta ezin beste lagun pasatu da egunotan aretotik.

Omenaldiko egun handia, baina, eguaztenean iritsi zen, *Anjel Bazterretxea, herrigintzan akuilu eta hauspo* dokumentalarekin. San Agustin kulturgunean eman zuten ikus-entzunezkoa, eta aretoa bete egin zen. Elgoibarko Izarrak osatu du proiektua Mendaroko Udalaren laguntzarekin, eta Dorleta Lazarobaster Udaleko zinegotziak eta Ainara Argoitia BARREneko kazetariak egin zituzten aurkezpen lanak. Bazterretxea Mendaron nor izan zen gogoratu zuen Lazarobasterrek, eta eskerrak eman zizkien bidean laguntza eta babesa agertu dieten guztiei eta azpimarra berezia egin zuen Ainara Argoitiaren izena aipatuta. Hark hartu zion ondoren hitza, hunkituta. Argoitiak eskerrak eman zizkien Bazterretxea-Elezgarai familiakoei eta dokumentalerako kamera aurrean jarri diren lagun guztiei, bai eta Udalari ere proiektua diruz laguntzeagatik. Era berean, lantaldea ere eskertu zuen. Hasierako hitzen ostetik, ekitaldia aurkeztu zuen Argoitiak. Anjelen iloba Aintzane



Bazterretxea Elezgarai eta Maddi Arriola Mendieta mendarorarrak bi kantu jo zituzten lehendabizi, pianoa eta biolinarekin lagunduta. Dokumentala ikusitakoan, lore eskaintza egin zieten antolatzaileek Bazterretxearen etxekoei, eta ondoren Aitor Motriko Mendaroko elizako abesbatzako zuzendariak eta Aintzane Bazterretxea ilobak gidatuta, 'Ene Mutriku maitea' kantua abestu zuten, Anjel Bazterretxea berak sortutakoa delako kantuko letra. Ezustekorik ere izan zen: Herritar talde bat igo zen oholtzara bukaeran antolatzaileei eskerrak ematera. Lore-sorta bana eta Mendaroko txokolatea jaso zituzten antolatzaileek haien eskutik.

'Queen gaua' gaur, Udal Musika Bandarekin, Maalako parkean



Azken urteetako ohiturari jarraituz, kontzertu berezia eskainiko du gaur gauean Udal Musika Bandak. *Queen gaua* jarri diote izena ekitaldiari, eta Queen talde ezagunaren abestiak eskainiko dituzte. Musika Bandako kideez gain, herriko hainbat musikaririk ere hartuko dute parte gaur gaueko kontzertuan: Jon Gurrutxagak ahotsa jarriko du zenbait abestitan, Patxi Zabaletak gitarra joko du, Andoni Mujikak baxua eta Silvia Hernandezek pianoa. Guztira 13 pieza joko dituzte. Kontzertua 22:30ean izango da, Maalako parkean.

Amaia Sastre da Elgoibarko Izarrako lehendakari berria



Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak bazkideen batzar orokorra egin zuen martitzenean, eta beste hainbat gairen artean zuzendaritza batzorde berria aurkeztu zuten. Iñaki Kondek bere kargua laga du 11 urteren ondoren, eta Amaia Sastrek hartu du orain lehendakari postua. Gainerako batzordekideak hauek izango dira: Abel Arriaga

(lehendakariordea), Amaia Arrizabalaga (diruzaina), Amaia Lasagabaster (idazkaria), Aitor Lauzirika, Iñaki Konde, Ana Bereziartua, eta Imanol Larrañaga.

Horrez gain, 2022an egindakoak eta 2023rako dituzten asmoak aurkeztu zituzten proiektu buruek, eta kudeatzaileak egoera ekonomikoaren berri eman zuten.

Sanbartolomeetako egitarauko azala aukeratzeko kartel lehiaketa martxan da

Abuztuaren 23tik 28ra ospatuko dira San Bartolome jaiak, eta Udalak dagoeneko martxan jarri du egitarauaren azala aukeratzeko kartel lehiaketa. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta teknika librea izango da, baina ezinbestean agertu behar da esaldi hau: "Elgoibar, San Bartolome Jaiak 2023". Lanak euskarri gogorrean aurkeztu behar dira, 225mm x 225mm neurrian edo horren proportzionalan. Partaide bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu, gehienez. Irabazleak 800 euroko saria irabaziko du. Egitarauan, bestalde, eskola-umeen kartelak ere agertuko dira, eta lehiaketa hori ere abian da. 18 urtetik beherakoek har dezakete parte tarte horretan. Nahi duten teknika erabili dezakete, baina erliebedun kartelik ez dute onartuko. Sei lan sarituko dituzte.

Lanak Kultura Sailean aurkeztu behar dira, ekainaren 23ko 13:00etarako. Informazio gehiagorako: www.elgoibar.eus

Mendaroko musika eskolakoek ikasturte amaierako jaialdia egingo dute ekainaren 15ean



Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikasleak ikasturte amaierako kontzertuak ematen aritu dira azken egunotan. Gitarra, perkusioa, pianoa eta trikitixa ikasten ari diren ikasleek eskaini dituzte orain arteko saioak, baina datorren ekainaren 15ean ikasle guztiek emanaldia egingo dute. 19:00etan izango da, Herriko Enparantzan.

LANA

Eskaerak

Uztailean umeak zaintzeko prest nago, goizez. Neska gazte euskalduna naiz.

634 429 508 (Sara)

Adinekoak zaintzeko prest nago.

Esperientzia daukat. Etxeko langile moduan, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest nago.

642 578 943

Adinekoak zaintzeko prest nago.

Esperientzia daukat. Etxeko langile moduan, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest nago.

642 577 823

Adinekoak zaintzeko eta etxeak garbitzen lan egiteko prest nago.

643 505 827

Lan egiteko prestutasun handia daukat. Esperientzia daukat finantza arloan. 603 124 131

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, gauz ere bai. Titulua daukat. 631 125 127

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain laguntzaile titulua daukat. 602 398 328

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. 641 576 213

Eskaintza

Pertsona bat behar da garbiketa lanetarako eta sukaldatzeko. Astean bi egunetan, orduka.

667 083 913

Mekanizazio lantegi baterako langile bila gabilta. Ez da behar ezagutza berezirik, baina ezinbestekoa da pertsona dinamikoa eta efizientea izatea. Denboraldi luzerako lanpostua. Bidali Cva comercial@ajubita.com helbidera edo deitu 943 740 929 zenbakira.

GARAJEAK

17 m²-ko garaje itxia alokatzen dut Lekuederren. Sarrera Musika Eskola ondotik. 3. solairua. 629 526 683

KINTO OSPAKIZUNAK

1953an jaiotakoen kinto ospakizuna, ekainaren 17an. Bazkaria: Karakate jatetxean. Interesatuek 70 € sartu behar dituzte ekainaren 15erako (izen-abizenak zehaztuz): ES44 3008 0182 8348 7816 3627 (Caja Rural). Egunean bertan Maalan elkartuko dira 12:30ean.



Maria Acha Churruca

2023ko ekainaren 7an hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Negocios
Euzkoako Enkainako Administraziozainaren Lurralde Komunitatea



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Jakin nahi nuke Komunitateko lehendakariak bere kabuz erabaki dezakeen igogailuak mantentzeko enpresa bati kontratua ez berritzea.

Egia esan, etxejabeen batzarrak erabaki beharreko gaia da. Egoera horretan, kontratua ez berritzea edo kontratua suntsiaraztea batzarraren esku jarriko balitz, presidenteak aldez aurretik jakinarazi beharko luke erabaki hori. Izan ere, igogailuak mantentzeko kontratuak bertan behera utzi badaitezke ere, Komunitateak hartu beharko litzuzke bere gain kalte-ordainak, betiere, enpresa mantentzaileak sinatutako kontratua aldez aurretik eteteak eragiten dizkion kalteei buruzko aditu-bostenaren bidez egiaztatuta. Kasu horretan, beharrezkoa da lehendakariak komunitateari aurrez jakinaraztea, eta gero, erabakia gehiengo-erregimenaren bidez hartuko du batzarrak.

Gomendioa: Kontratuak eteteko aukera hori zuzenean aplikatzekoa dela ulertu behar da igogailuak mantentzeko kontratuetan, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorra indarrean sartu zenetik. Izan ere, espresuki debekatzen dira iraupen-epe handiegia ezartzen dituzten klausulak edo kontsumitzaileek kontratua eteteko duten eskubidea oztopatzen duten mugak. Kontratu mota horretan ezin da ezarri aldez aurretik ordaindutako kopuruak galtzea edo eman ez diren zerbitzuengatikoz zenbatekoak ordaintzea ahalbidetuko lukeen kostu bidezko kargarik.




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Jon**, gaur 8 urte! Oso ondo pasa eta muxu handi bat etxeko denon partez!



Zorionak, **Maddi**! Ondo pasa zure 3. urtebetze egunean. Muxu potolo bat, familiakoen partez.



Zorionak, **Kilian**, asteartean 5 urte bete zenituelako. Familiako guztion partez muxu handi bat. Asko maite zaitugu.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Erretratu bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

IKASBAI AKADEMIA **MATRIKULA DOAN**

MATRIKULAK ZABALIK 2023/2024 IKASTURTE

ESKOLA PARTIKULARRAK

- Ikasgai guztiak
- LH+DBH
- Talde bikiak

INGELES AKADEMIA

- Eskola laguntza
- Eskola pertsonalizatuak
- Cambridge azterketak
- Haurrak eta helduak

667 261 248
BASARTE 13, BEHEA, Elgoibar

EXPRESS ESKAINTZAK!



**ROWENTA DW8215D1
ARROPARAKO PLANTXA**

- 2800 W
- Microsteam 400 HD profile zola
- Lurrun jarraitua 45 g/min
- Lurrun-kolpea 200 g/min
- Doitasun handiko punta
- Doitasun handiko ihintzagailua

79,90 €

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

LAGUNAK colchoneria textil hogar



180 cm-ko luzerako koltzoietan
%5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, **%10**

1. STRETCH SEAQUAL EHUNA
2. VISCOTERMIC EHUNA
3. 60° GARBITZEKOA
4. HIRU DIMENTSIOKO EHUNA
5. ATSEDEN INDEPENDENTEA
6. ARTIKULAZIOA ETA TRANSPIRAZIOA PROFILATZEA
7. ZIRKULAZIOA HOBETZEN DU - 8. ERGONOMIKOA

Luzera: 90 | 105 | 135 | 150
Prezioa: 565€ | 615€ | 755€ | 815€

OINARRI TAPIZATUTA THERMOFRESS EHUNA

OPARI
Bikoitza eragotzea

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

9 BARIKUA

16:30 Odol ateratzea, Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

19:00 Euskal dantzakoen jaialdia. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, Kalegoen plazan.

22:30 Kontzertua: 'Queen gaua'. Udal Musika Bandaren kontzertu berezia. Maalako parkean.

10 ZAPATUA

10:30 Ikastolaren Eguna. Kalejiran joango dira Kalegoen plazatik Ikastolaraino, eta han eguerdira arteko ekintzak izango dituzte.

16:00 Hausnarketa taldea: 'Gizarte-errotzea'. Merlin Medinarekin, Lilan. Etxeko langileentzat izango da, gaztelaniaz. Ez da izenik eman behar.

11 DOMEKA

11:30 Auzoko jaia. Kalegoen plazan hasiko da.

18:00 Antzerkia: 'Sex Sua'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

13 MARTITZENA

12:00 San Antonio Eguneko meza, Urruzuno auzoko elkarte aurrean. Ondoren, luntxa.

14 EGUAZTENA

20:00 'Birakaos', Biraka dantza taldekoen jaialdia. Herriko Antzokian.

15 EGUENA

20:00 'Birakaos', Biraka dantza taldekoen jaialdia. Herriko Antzokian.

19:00 Tertuliak bertsoetan. Tertuliak egitasmoa amaitzeko ekitaldia. Kultur Etxeko sotoan. Doan.

19:00 Musika Eskolako ikasturte amaierako jaialdia, Mendaron. Herriko Enparantzan.

16 BARIKUA

20:00 'Birakaos', Biraka dantza taldekoen jaialdia. Herriko Antzokian.

BARRENEko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta badaizu edo hondatuta baduzu, **BARRENE**n bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

EKAINA

9 BARIKUA	Yudego
10 ZAPATUA	■ Oruesagasti / ■ Arriola
11 DOMEKA	■ Oruesagasti
12 ASTELEHENA	Barrenetxea
13 MARTITZENA	■ Ibañez
14 EGUAZTENA	Garitaonandia
15 EGUENA	Arriola
16 BARIKUA	■ Fernandez

2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00
Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384




Mari Carmen Zubiaurre Aranberri

2023ko ekainaren 1ean hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jesus Mari Txurruka Azpiazu

2023ko ekainaren 4an hil zen, 74 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



II.URTEURRENA

Francisco Egea Garcia

2021eko ekainaren 11n hil zen, 70 urte zituela.

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Familia



XI. URTEURRENA
***Joseba Bilbao
Garate***

2012ko ekainaren 4an hil zen,
48 urte zituela.

***Ohore bat izan da zuek gure
bizitzan bidelagun eduki izana.***

Etxekoak




I. URTEURRENA
***Joxe Bilbao
Garate***

2022ko ekainaren 8an hil zen,
90 urte zituela.



Jose Ramon Cabrera





Miren Itziar Ajuria Garate

2023ko ekainaren 4an hil zen, 99 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Maitasunez,
beti gure bihotzetan.**

Etxeakoak



Miren Itziar Ajuria Garate

2023ko ekainaren 4an hil zen,
99 urte zituela.

**Andereño Itziar joan zaigu.
Oroitzean izango zaitugu,
1962tik hona ametsa izan zen
hura errealitate bihurtzeko
egindako ahaleginagatik eta
eskainitako lankidetzagatik.**



Miren Itziar Ajuria Garate

2023ko ekainaren 4an hil zen,
99 urte zituela.

**Berez ez da sekula
garatzen mundua,
eskertzekoa da zuk
hortan lagundua.
Jarri dituzulako
bihotza, burua...
ezagutuz hobetzen
gure ingurua.**



Auzoko jaia

Zubi bat euskaratik

ELGOIBAR. EKAINAK 11

11:30 ONGI ETORRIA.

Kalegoen Plazan eta HARRERA Udaletxean.

11:45 HAMAIKETAKOA.

Aita Agirre Kulturgunean.

12:30 MUSIKA ETA DANTZAZ GIROTUTAKO IBILBIDEA.

Aita Agirre Kulturgunetik hasita.

Maalako parkean:

13:15 MUNDUKO HIZKUNTZEN AGERTOKIA.

13:30 AUZOKO JOLASAK ETA TAILERRAK.

14:00 JANARI DASTAKETA.

14:30 DANTZA AFRIKARREN TAILERRA.

15:30 MUNDUKO DANTZAK ETA MUSIKA.

